


## 1918 urteko gripea Goizuetan

Abuztuko ama-birginaren egunean eta ondorengoetan Goizuetak jaiak ospatzen ditu, eta 1918 urtean zezenak, musika, dantza, mezak eta bestelakoak izango zirela pentsatzen dut. Baina guztia ez zen festa Goizuetan, eta herriko erregistro zibilaren arabera abuztuaren 18an hogeita bi urteko emakume bat hil zen Goizuetan. “*Bronco-pneumonia gripal*”a da agiriaren arabera heriotzaren diagnostikoa. Gripeak eragindako heriotza honek birusa jai egunetan herrian zegoela, eta ama-birginako festak ospatzeko bildutako herriko bazter guztietako lagunen artean erraz zabalduko zela pentsarazten du. Horrela 1918ko irailaren hasieran gripeak epidemiaren tamaina hartzen duenean alarma guztiak pizten dira, baina ez bakarrik Goizuetan, probintzia osoan eta baita prentsaren bitartez Gipuzkoan ere.

	<p>“La Voz de Guipuzcoa” 1918ko irailaren 9an egunkariak Nafarroan duen korrespentsalak bidalitako kronika: hirurehun gaixo, zortzi hildakoak bi egunetan, medikua ere gaixo, e.a. (Kronikak esajeratu egiten du baina Goizuetan egoera larria, oso larria, zen). Gipuzkoan izututa geratu ziren, eta adibidez Hernanin, kronikan oraindik gripea aipatu ez arren, neurri gogorrak, besteak beste Nafarroarekin muga ixtea, hartu zuten.</p> <p>Goizuetako osasun egoera ikusteko egun horretan Nafarroako gobernadorea Luis M<sup>a</sup> Queipo de Llano (agian Gonzalo Queipo de Llano jeneral frankistaren senidea) Goizuetan azaltzen da, probintziako osasun inspektorearekin, Jimeno jaunarekin batera. Hurrengo egunean Jimeno jaunak Goizuetako osasun batzordean parte hartuko du.</p>
--	--

Goizuetan irailaren hasieran gripearen epidemia asko zabaltzen da, eta egunetik egunera gaixoak asko ugaritzen dira. Herriko osasun batzordearen bidez kudeatzen dute osasun egoera, eta zenbait neurri hartzeko hiru bilera egin zituzten irailean.

### Herriko osasun batzordearen bilerak.-

1918ko irailaren 2an biltzen da Herriko Osasun Batzordea gripearen epidemiari aurre egiteko zenbait neurri hartzeko. Osasun Batzordeak bando bat argitaratzea erabaki zuen, non famili buru bakoitzak etxe aurrea garbitu behar duela agintzen den, eta jasotzen den zaborra Udalaren arduradunak eramango duela esanez, bost pezetetako isuna jarriko zaiola betetzen ez duenari. Baita batzordean ere, gaixoen kopuru handia dela eta guztiak bisitatzeko medikuaren ezintasuna, Aranoko praktikanteari konbidatzea Goizuetako medikuari lagundu diezaion. Azkenik bilera honetan ere, harategiaren arduradunari, Zeferino Loiarteri, gaixoei elikatzeko behi haragiaz hornituta egon zedin erregutzen zioten.

Hurrengo egunean, irailaren 3an, hogeita lau ordutan gripe epidemiak hartu duen hedapenak, tartean botikarioa, Francisco Recalde, ere gaixotu delarik, Goizuetako herriak dituen baliabideak gainditurik, berriro herriko Osasun Batzordea biltzen da. Batzordeak udaleko udal idazkaria, Frantzisko

Aizkorbe, Iruñera bidaltzea erabakitzen du, Gobernadorearekin eta Probintziako Osasun Inspektorearekin, Jimeno jaunarekin, bildu zedin, Goizuetako osasun egoera larriari, gripe epidemiari aurre egiteko beste medikuren eta botikarioaren beharra kudea dezan. Baita erabakitzen da ere, griperen epidemiak hartu duen garapena ikusirik, Gobernadoreari eta Probintziako Osasun Inspektoreari azaltzea Inspeksio bisita egitea behar beharrezkoa dela. Irailaren 9an Gobernadorea, Queipo de Llano joango da Goizuetara, eta Irailaren 10ean Probintziako Osasun Inspektoreak, Jimeno jaunak, parte hartuko du Irailean egingo den hirugarren Herriko Osasun Batzordean.

Herriko Osasun Batzordea berriro bilduko da Goizuetan irailaren 10ean eta bertan probintziako Osasun Inspektoreak, Manuel Jimenok parte hartuko du. Batzordeak hiru erabaki hartu zituen: ukuiluak eta ukuiluko simaurrak desinfektatzeko kare bizia erostea, Farmazian botikak falta ez zaitezten arreta berezia jartzea, eta azkenik gaixoak zaintzeko pertsonala lortzea, ahal bada Karitate-Ahizpako mojak. Azken puntu hau, Jimeno jaunak berak kudeatuko zuela agindu zuen.

Hurrengo herriko batzordea 1918ko abenduan hogeita bederatzian bildu da eta beste gaiei buruz aritu zen. Ordurako gripe epidemia pasa zen.

### **Goizuetako udal osoko bilkuraren aktak.-**

Azaldu dugunez Goizuetako Osasun Batzordeak epidemiaren aurkako neurri nagusiak kudeatu zituen, baina Udal Bilkurak ere beste zenbait neurri, laguntzazkoak eta bestelakoak, hartu zituen ere. Aktetan jasota daude.

2018ko Irailaren hogeita biko Udal Osoko Bilkuran Gorostin baserriko Martin Jose Zozaiak azaltzen du gripearen ondorioz familia ugari baliabiderik gabe geratu direla, eta Udalari laguntza eskatzen dio. Udalak, hilabete batean, Zozai familiari ehun pezetako jenerorekin laguntzea erabaki zuen.



Gorostin baserria, Goizuetan, non 1918ko gripearen epidemiak oso gogor jo zuen.

Luis Larrea gazteari pezeta batekin eguneko zortzi egunetan, eta Joakin Anduezaren familiari pezeta eta erdi batekin eguneko hamabost egunetan.

Bilkura honetan bestelako erabakiak administratiboak izan ziren gripearekin zerikusirik ez zutenek.

Hurrengo Udal Osoko Bilkura urriaren seian egin zen, eta bertan erabaki zen Joakin Anduezen familiari laguntza beste hamabost egun luzatzea. Baita bilkura honetan ere, Juan Bautista Olaizolak, herriko bizilagun eta Udaleko zinegotziak, baimena eskatzen zuen gurutze bat jartzeko irailean 14ean hogeita hamahiru urterekin gripeak hil zuen bere semearen, Eusebio Olaizola Huiziren, hilobiaren gainean. Udalak baimena eman zion.


Eta azkenik hurrengo bilkuran, urriaren 20ean, erabaki zuen izendatutako maisuei kargua hartzeko lehenbailehen herrira etor zitezten komunikatzea, eta baita Aretxabaletako botikari izendatu berriari ere, gauza bera komunikatzea.

Hurrengo Udal bilkuran, azaroan, agendan griperik ez zen sartu.

### 1918ko gripearen ondorioz heriotzak


1920 urtean Goizuetako populazioa 1330 lagunekoa zen, 686 gizonetzkoak eta 644 emakumezkoak. 1917 eta 1918 urteetan antzekoa izango zela pentsa daiteke eta beraz 1330 zifra hartuko dut ondorengo azalpenak emateko.

1918 urteko gripearen ondorio tragikoaz hobeto jabetzeko Goizuetan aurreko urtean, 1917 urtean, izan ziren heriotzekin konparatu behar da.



1917 urtean Goizuetan hamalau lagun hil ziren, zortzi gizonetzkoak eta 6 emakumezkoak. Gehienek, zortzi, hirurogei urte baino gehiago zuten. Bi haur (bederatzi hilebetekoak), eta lau 18 eta berrogeita hiru urteen artean. Grafikoan azaltzen denez hilabete batean gehienek bi hil ziren, uztailean eta irailean inor ez. Goizuetan heriotza-tasa % 10,8 izan zen 1917, eta ehun urte beranduago Nafarroan, 2017an, % 9,11. Altuagoa baina ez hainbeste.

1918 urtean berriz, Goizuetan, 30 lagun hil ziren. Gripearen ondorioz hildakoak bikoizten dira. Gainera haurrak eta gazteak akabatzen ditu, zaharrak errespetatuz. Goizuetan 1918 urtean, bost dira hirurogei urte baino zaharragoak hil zirenak, hamar haur, eta hamabost gazte hil ziren. Hamalau gizonetzkoak eta hamasei emakumezkoak.



Hilezkortasun tasa % 23ra igo zen, bikoiztuz aurreko urtekoa. Grafikoan ikusten denez irailean eta urrian izan ziren hildako gehienak. Irailean hamabost lagun, haurrak eta gazteak, eta guztiak, heriotza agirien arabera, gripez jota



hildakoak. Hamabi goizuetar, tartean botikarioaren emaztea, eta hiru Goizuetan lanean ari ziren goierritarrak (Ataun, Segura eta Lazkaokoak). Iraileko hamalau egunetan hil-ezkilak entzun ziren, eta herritarren artean gaixo nahiz sanoen artean egongo zen giroa iluna izango zela pentsa daiteke

Urriari berriz lau lagun (hiru haur eta gazte bat). Haurrak gripez jota hilda eta gaztea, hogeita hamabi urtekoa tuberkulosiak hilda. Azaroan normalizatzen da: hildako bakarra, emakumezkoa, bihotzetik jota, hirurogeita zazpi urterekin.

Gaur egun, 1918 urteko gripez ez dago oroimenik, ezta kanposantuan garai hartako arrastorik ere. Ehun urte pasa dira, eta tarte horretan, aurreko tragediek txikiak utzi zituzten gertaera franko.

## 1918 urteko gripea Aranon

Arano herrian 1918 urtean 432 lagun bizi ziren, 221 gizonezkoak eta 211 emakumezkoak, ia laukoizten zuen gaurko biztanleria. Udal artxiboan Osoko bilkuren aktetan griperen epidemiaren arrastorik ez dago, eta herriko Osasun Batzorderik ez zegoen. Goizuetarekin medikua partekatuko zuten, eta Aranon praktikantea besterik ez zen egongo. 1918 urtean gripeak herri txiki hau ere jo zuen. Irailean eta urriari lau hildako utzi zituen, hamalau hilabeteko haurra, eta 17, 26 eta 33 urteko hiru gazte. Biztanleriaren ehuneko bata.



Argazkian Aranoko herriko ezkilak, 1918 urtean hil ezkilak zortzi aldiz entzun ziren

### Hil-ezkilak

Herriari norbait hiltzen zenean elizako ezkilak erabiltzen ziren abisua emateko. Mantso-mantso jotzen ziren eta joak desberdinak ziren emakumea edo gizonezkoa baldin bazan hildakoa. Zenbait lekutan ere joa desberdintzen zen hildakoa haurra zenean.